

2025EKO AURREKONTUKO FINANTZA-EKONOMIA TXOSTENA

Behean sinatzen duenak indarrean dagoen legegintza betez, honako txostena egiten du.

TXOSTENA

Aurrekontuaren gastuen egoera 19.840.479,09 eurokoa da eta sarreren egoera beste hainbestekoa, beraz, aurrekontuan berdinketa ematen da, hasierako galerarik gabe indarrean dagoen legegintzaren arabera.

Horrez gain, sarrera arruntek gutxienez gastu arruntak edo funtzionamendukoak finantzatu behar dituzte, ezinezkoa da aipatutako gastuak kapital sarrerekin finantzatzea. Udalaren sarrera arruntak 17.730.074,91€koak dira, eta gastu arruntak 16.839.826,14€koak.

Aurrekontuko sarrera partidetan egindako aurreikuspenak balio estimagarria daukate, balio zehatza ezagutzen ziren partida batzuen izan ezik, bada, horiena justua da. Gainerako partidak aurreko urtearekin alderatuta eta kopuruei dagokienez, aldatu egin dira Ordenantza Fiskalek izan duten moldaketak eta aurreko urteko likidazioa kontuan izanda.

Aurreikusten den sarreren egoera, atalka, honako hau da:

DIRU-SARRERAK

KAPIT.	IZENA	2025
1	Zuzeneko zergak	3.704.547,08
2	Zeharkako zergak	200.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	3.752.689,44
4	Transferentzia arruntak	9.940.220,47
5	Ondare sarrerak	132.617,92
6	Inbertsio errealak besterentzea	1.200.000,00
7	Kapital transferentziak	504.093,54
8	Finantza aktiboak	406.310,64
9	Finantza pasiboak	0,00
G U Z T I R A		19.840.479,09

Gastuen egoerari dagokionez, batetik, urte honetan sor daitezkeen beharrei aurre egiteko eta, bestetik, pertsonala, zorra, eta hartutako konpromisoena finkatu dira aurreikuspenak egiteko orduan, aurrekontu partida bakoitzean helburu zehatza finkatuz.

Aurreikusten den gastuaren egoera, atalka, honako hau da:

GASTUAK

KAPIT.	IZENA	2025
1	Pertsonal gastua	6.049.458,16
2	Ondasun arruntak	9.068.360,30
3	Interesak	3.700,00
4	Transferentzia arruntak	1.668.307,68
5	Kreditu globala	50.000,00
6	Inbertsioak	2.939.628,67
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	5.000,00
9	Finantza pasiboak	56.024,28
GUZTIRA		19.840.479,09

Momentu honetan, Udalak indarrean duen mailegu bakarra IDAE-ko argiteri proiektua aurrera eramateko 2019ko apirilaren 10ean sinatutako mailegu poliza da, 504.219 eurokoa. 2025.urtean 56.024,28€ amortizatuko dira, interesik gabe, eta epe-muga 2029ko maiatzaren 31 da.

Entitate Mailegu emailea	Mailegu kontratuaren Zk.	Indarraldia		% interesa	KREDITUAREN ZENBATEKOA	
		Hasierako data	Amaierako data		Hasierako bateratua	2025ko Urtarrilaren 1eko saldo bizia
IDAE	102	10/04/2019	31/05/2029	0	504.219,00	247.441,05
AURREKO MAILEGUAK GUZTIRA					0	0
MAILEGU BERRIAK					0	0
GUZTIRA					504.219,00	247.441,05

Dokumentu honetatik atera daitezkeen beste datu batzuk hauek dira:

2025eko urtearen bukaerarako aurreikusten den zorra 191.416,77 eurokoa da.

Aurrezki gordina, (sarrera arruntak, gastuen 1, 2, eta 4 atalak kenduta) 943.948,77 eurokoa litzateke eta aurrezki garbia, urteroko maileguaren aurreikuspena kenduta, 884.224,49 eurokoa.

Zorren maila, urtarilaren bateko datarekin beraz, (finantza zama eta sarrera arrunten zatidura), % 1,4 izango litzateke. Azkenik, inbertsio indizea, (6.atala eta aurrekontu osoaren zatidura) % 14,82.

Hala aditzera ematen du sinatzaileak, 2025 urteko aurrekontuan jasota gera dadin.

Zumaian,

KONTU-HARTZAILEA